

Nola sartu GOKo jabber-gelan

! Nire gomendioa, duda ez bairik gabe, Firefox erabiltzea da. Libre da, euskaraz dago, segurua da eta komunitate batek mantenua. Ez badakizu zer den Firefox, [hemen](#) informazio gehio.

1. Firefox-en web helbidea jartzeko dagoen eremuan, helbidea hau sartu:
<http://hitzegin.euskalherria.info>



2. Honen antzeko mezua aterako zaizu. LASAI ez dela ezer ez arraroa edo susmagarria gertatzen. Emaiozu azpian gorritz borobildua dagoen botoiari.



Konexio hau ez da fidagarria

Namoroka(r)i eskatu diozu zerbitzarira modu seguruan
konektatzeko, baina ezin dugu berretsi zure konexioa segurua denik.

Normalean, modu seguruan konektatzen saiatzean, guneek identifikazio fidagarria aurkeztuko dizute leku egokira zoazela frogatzeko. Hala ere, gune honen identitatea ezin da egiaztatu.

Zer egin behar nuke?

Gune honetara normalean inolako arazorik gabe konektatzen bazara, norbait benetako gunearen itxurak egiten ari dela esan nahi du errore honek eta ez zenuke jarraitu behar.

[Eraman hemendik kanpora!](#)

▼ Xehetasun teknikoak

(e)k segurtasun ziurtagiri baliogabe bat erabiltzen du.

Ziurtagiria ez da fidagarria ziurtagiri jaulkitzailea ez delako fidagarria.
Ziurtagiria (r)entzat erabil daiteke soilik.
Ziurtagiria og., 2008.eko ekaren 19a 22:17(e)an iraungi zen.

(Errore-kodea: sec_error_untrusted_issuer)


▼ Arriskuak ulertzen ditut

Zer gertatzen ari den ulertzen baduzu, gune honen identifikazioaz fidatzeko esan diezaiokezu Namoroka(r)i. **Gune honetaz fidatuta ere, norbait zure konexioan eskua sartzen ari dela esan nahi dezake errore honek.**

Ez gehitu salbuespenik gune honek identifikazio fidagarria ez erabiltzeko arrazoi on bat duela jakin ezean.


[Gehitu salbuespena...](#)

3. Honen antzeko pantaila bat aterako zaizu:




⚠ 3. eta 4. puntuak ordenagailu horretan sartzen zaren lehen aldian egin behar dira. Bigarrenetik aurrera, bi pauso hauek ez dira egin behar.

4. Chat antzeko pantaila bat agertuko zaizu.



5. Chat-ak berak bakarrik, “anonimoki” izena emango du zuregatik. Ez larritu emandako izena EEUUko presidenten izena bada. Zu nick-a erabili nahi baduzu, `/nick ZURE_IZENA` sartu hitzegiteko kuadroan, <INTRO> sakatu eta izena aldatu zaizula ikusiko duzu.



⚠ *Nire gomendioa jabber zerbitzuaren barruan kontu bat sortzea da. Hau aurrerago azalduko da.*

6. Mezuak idazteko, `/nick ZURE_IZENA` jarri duzun leku berean, esan nahi duzuna idatzi eta <INTRO> eman.

⚠ *Gelan dagoen beste norbaiten izena idatzi nahi bada, izenaren lehen hizkiak jarri eta gero tabuladoreari eman (bere imagina ,gezi bat goraka da) eta gomendioak emango dizkizu . Bakarra bada, ordea, izen osoa agertuko da. Oso erabilgarria.*



Dokumentu hau [Reconocimiento-No comercial-Compartir bajo la misma licencia 3.0](#) lizentzia baten jabe da.